

PULUNPEan

Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

Aurkibidea

22-23 BITXIKERITAN 24-25 LABURRAK 26-27 KULTURA
20-21 ASPALDIKO KONTUAK

18-19 BERDINTASUNA

16-17 SALTSA-PURRUSTA

14-15 ERAKUSKETA ETA CEDERNA

12-13 EKIMENAK

10-11 ALBISTEAK

8-9 SAHARA

6-7 ERREPORTAIA

SU PINTERRAK

AGENDA

NETZABERRI

Pulunpe ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Argitaratzailea Ametza Kultur Elkarte

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Jule, Laia, Ainara, Patxi, Oier, Goizargi, Inma, Izaskun, Ruben, Maitane, Lander, Alazne, Javi, Bakartxo, Maialen, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Ekaitz, Mentxu, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Amaia Berdintasun teknikaria, Txurdan.

Koordinatzailea: Iosu Martínez Urdaci

Argazkiak: Txurdan, Facebook sareko jendea, Saltsa Purrusta eta Urtebetetzetara bidaltzen dituzuenak.

Marrazkilaria: Joxe Jabier

Arazo teknikoak: Txin

Tirada 1.600 ale - Banaketa: Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzama
Inprimategia: gertu - Maketazioa: AMETZA - Lege gordailua: NA 721/93



948 305134 Euskara Zerbitzua
948 503232 Esan Erran irratia
948 305353 Kultur Animatzailea

Beramendiko Mitxeleneko bordan da gure gaurko langile anonimoa. Inmaculada Fernandez Vicuña dugu gaur hirugarren orrialde honetara dakarguna. Orain 20 edo 21 urte etorria gure artera bizitzera borda erosi eta. Hasiera-hasieratik, haragitarako behiak jarri zituen eta oraindik ere hortik ateratzen du bere bizibidea. Bordan bizi da bere senarra Jorgerekin, oilo eta ahatez inguratua, katu eta zakurrez, baina esan dugun bezala, behizaina dugu joan den 20 urte honetan.

-Inmaculada, zu euskaldun berria zara. Hona etorri zinenean euskaraz motz zenbiltzan, ez da hala?

-Oi, oi, ideiarik ere ez nuen. Ez euskaraz eta ez nekazalgoan. Geroztik hasi nintzen euskaraz ikasten, orain duela hamabiren bat urte edo. Hasi, utzi, hasi utzi ibili izan naiz baina beti eutsi diot ikasteko nahi horri. Gaur franko ongi moldatzen naiz baina beti ikasten segituko dut. Eta nekazalgoan ere bai, beti ikasten.

-Inma, zu zaitugu azken urte hauetan, hemen Basaburuan, Pulunpe aurrera ateratzen lagundu gaituzuna. Noiz hasi zinen banaketa lanetan, etxez etxe

banatzen?

-Ba, egia esateko ez nago seguru baina orain lauron bat urte izanen da, eskoletako haurrak banatzez utzi zutenean. Orduan herri guzietan norbait opatu behar zen eta ni ibili nintzen jendea opatzen.

Bai, hala da, ez gara asko harritzen, Inmaculada emakume irekia, eta adiskideak egiten abildade aparta baitu.

-Zein herritan banatzen duzu? Nola egiten duzu lan hori?

-Ni Beramendin bizi naiz eta Beramendi eta Udabeko banaketa lana egiten dut. Pulunpe Basaburura ekartzen dutenean herrietako banatzaile guziak deitzen ditut bakoitzak bere herrietara eraman eta banatzeko. Nik gure bi herrietakoak hartu eta etxez etxe joaten naiz, egunak pasatzea utzi gabe, lehenbailehen egin behar baita berriak zahartzea utzi gabe.

Gaurkoz aski izanen dugu, Inma, berriz ere zure berri izanen baitugu. Banaketan eta beste edozeinetan zure laguntza beti izan dugu. Izan ongi eta eskerrik beroenak PULUNPE familia guziaren partetik.



AMETZABERRI

EZ EZAZU GALDU EZER
GURE AGENDARI ESKER!

Ikastaroak

Ipuin Ilustratuak

Larraintzarren Liburute-
gian,
Apirilaren 30 eta Maiat-
zaren 2,7, eta 9an.
Arratsaldeko 5:30tik
6:30etara.

Kamishibai

Aizarotzen
Astearte eta ostegunetan;
Maiatzaren 14,16,21 eta
23
Arratsaldeko 5:30tik
6:30etara.

Erakusketak

Margolaritza:
"Vuelta a Casa" Letilur
artistak eskeinia. La-
rraintzarren.

Besteak

Maiatzak 3
kontuz elkartekoek "Los
Trileros Forales" aurkez-
tuko dute Larraintzarren.

Maiatzak 10
Nekane Juradoren Hitzal-
dia, Larraintzarren arrat-
salde partean.

Maiatzak 19

Kontzertua:
Musika Kubatarra, Jorge
Sanchezen esku. Larraint-
zarren arratseko zazpitan.

Maiatzak 24

Musika Eskolako kont-
zertua:
Aralar Musika Eskola, La-
rraintzarreko eskolako
Jantokian.

Maiatzak 31

Kultura ikastaroen ikas-
turte bukaerako festa: Es-
kulanak, altzariak
zzaharberritzearena, mar-
golariak...

Umirez



Eta bapatean, iluntasuna

Aste horretan hirugarren aldiz telefonoa hartu eta Iberdrolara deitu nuen; "Ea zer kontatzen didaten oraingoan" pentsatu nuen. Aurreko bietan telefonoaren beste aldean zegoen pertsonak historio ezberdin bat kontatu zidan: "Ez, ez, arazoa ez dago hor, arazoa Aizarotzeko postean dago, bai, bai, beno, itxoin... hemen beste gauzatxo bat jartzen du, teknikariak ari direla linea guztia jarraitzen ea zerbait aurkitzen duten..."

Telefonoa eskegi eta lehiotik begiratu hasi nintzen: "Jode, zer gertatuko litzateke horrela egun batzuk pasatzen badira?" Astelehena zen, eta oraindik aste guztian zehar Basaburua eta Ultzaman, argindarra Guadiana ibaiaren antzera ibili zen. Kalte ekonomikoak nabariak dira; etxeetan ordenagailu eta zenbait gailu elektronikoen arazoak, dendetan eta hostalaritzan kafea lapikoan egiten, itxi edo irekizer egin jakin gabe,



udaletxeetan zerbitzua ezin eman, industrian kalte ekonomikoak, logikoa denez, larriagoak izan dira, makineria eta langileria erdi-geldirik egonda...

Argindarrerekin egon diren arazo larriek zenbait asuntxo jarri dituzte mahai gainean; pasa dugun negu gorriaren ondorioen bat hau izan daiteke; elur eta euriek gutxinaka izoratu dituztela argi eta telefonoen linea eta kableak. Iberdrolatik esaten zuten ikusi beharko dela nork ordaintzen duen hori...

Bestetik, gogorarazi digute gure bizimoduaren zein dependientea den argindarrarekiko, eta horren kontrolik ez dugula... Hala ere, horiek ere eramaten gaitu pentsatzera duela ez

hainbeste arte korronterik gabe zoriontsu zirela...

Basaburuko Udalak kexa formalak aurkeztu ditu, eta animatzen ditu herritar guztiak gauza bera egitera, badakizue, kezkatzen ez bazara, ez dizute kasurik egingen. Hala ere, espero dugu oso gau erromantikoak pasa izana kandelapean!



Aski Da!

Iritzia

Gizartearen haserrearen gogorak gure ailegatzen ditu, edo hori dirudi. Ez dakigu noraino ailegatu daitezkeen erokeri hau; Maia, Sanz eta Mirandaren inputazioak, Barcina bere gazteluan "galdua"...

Pasa den apirilaren 6an milaka nafar hiritarrek ozen ohikatu zuten nahikoa dela,

aski dela. Ozen ohiukatu zuten Barcinaren dimisioa eskatuz, hauteskunde deialdia eskatuz, duintasuna eskatuz. Borroka hau, batez ere, duintasunaren aldekoa delako. Goizean ohetik altxatzean, gure bikote, maitale edo umeei aurpegira eta begietara lasai begiratzeko.

**ESAN
ERRAN
SESSIONS**

**LEGIA
KLIK!**

PLAY

AMETZA.INFO BIDEOA

Aurtengo Korrika memorian geratzen da jada. "Elkarbizitzarako gakoa dela diogu, elkarrekin bizitzeko, elkarri hitz egiteko, elkarri entzuteko, eta elkar ulertzeko tresna" dela diote AEKtik. "Baina horretarako, euskal herritarrok euskal kultura ezagutzea eta euskara jakitea beharrezkoa da".

Horregatik, Korrikak euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka pertsonak omendu ditu aurren. "Euskalakari izateko ahaleginean euskara ikasten eta praktikatzeko ari diren guztiak".

Gure eskualdearen kasuan, beraien izenak Pablo, Aurora, Gabi, Rakel, Dabid eta Aingeru dira. Urrun edo hurbilagoetik etorriak, hemen bizi dira orain, hemengoak dira. Gure hizkuntza ikasi nahi dute, praktikoa delako, beharrezkoa delako beraien bizitzarako, nahi dutelako...

Basaburuko Euskarri taldeak pare bat urte darama alfabetizazioan lanean, eta talde honek antolatzen du astean bitan Aizarotzeko Kultur Etxean, Arantxa Puignari esker, helduentzako euskara klaseak. Bixita egin genien eta solastu, gustora gainera. Hau da nahaste horretatik sortu zena...

-Ez ginen elkarrekin ezagutzen, gainera, duela urte batzuk klaseak ematen ziren baina bukatu egin ziren.

Nola elkartu zineten berriro?

Jauntsaratseko udalarekin kontaktuan jarri eta Aizarotzeko Nereak lagundu gintuen kontaktuak egiten, Arantxaren izen eman ziguten, eta gero guztiok jarri ginen kontaktuan; talde zaharra eta berria; zailtasunak aurkitu izan ditugu: batez ere gehienok gurasoak izan garelako... Horrek suposatzen duenarekin.

-Ihabenen bizi gara gu; Kadizetik etorri berriak geunden eta lur hartze prozesua hasi bezain laister, pentsatu genuen euskara ikasi beharko genuela, zonalde euskaldun batean gaudela kontuan hartuta.

Zein dira zuen motibazioak?

-Jendeak ulertzea, komunikatzea eta lan egitea.

-Kartelak eta letreroak ikusi, eta pentsatzen nuen, ze izango da, itxura ederra du, baina ze jarriko du...

-Nire kasuan, eguneroko bizitzan erabiltzeko, komunikazio aukerak haunditzeko jendearekin, bilerak, kartelak, parte hartzea hobetzea... Pertsona bakarra baldin bazara euskara ez dakizuna apurtzen duzu aurretik sortutako dinamika...

-Nire bi alabak eskolan daude, nire bikotea ere euskalduna da...



Eta ikas-eredua?

-Planteatzen genuen hezkuntza sistema “ez reglata” izatea, arina... Hitz egiteko balio zuena, praktikoa izatea...

-Oso metodo praktikoa da, dendara joaten gara, telefonoz hitz egiten dugu, Arantxak beti egiten ditu ahaleginak guk ahalik eta gehien hitz egitea...

-Nire aurreko esperientziza polita izan zen, metodoa guztiz ezberdina zen; gramatikalagoa, reglatua... erdaraz egiten zigun ere... Arauak eta horrelakoak erabiltzen, niretzat, behintzat errezago egiten zitzaifdan. Metodo honekin, praktikoagoa da, zuzenagoa...

-Hasieran ez ginen ezertaz enteratzen, “lehenengo klasean dena zen rikirik-rikirik-rikirik... Eta gu eee-ehhhh? baina oso giro ona sortu da hemen; alaba eta txakurrarekin gatoz eta guzti. Oso gai polemikoetan sartzen gara, bikote asuntuetan...

-Metodoa murgiltzean oinarritua dago, batez ere gu horrela eskatzen genuelako... aurkitu dut hizkuntza bat beste ezerekin inolako erlaziorik ez duela. Azkenean ski pista batean sartu gara, tutik ere jakin gabe, eta bultzatu gaituzte behera.. niri asko kostatzen ari zait gauzak barneratzea, baina askoz praktikoagoa da.

-Adibidez, ni askotan karteroarekin hitz egiten dut euskaraz, dagoeneko bi hizketaldi oso egin ditut... ***Norbaitek hortik galdetzen du ea “Amorantea” den... 50 urte ditu, “maduritoa” da.***

Farren artean azaltzen digute “Eta Killo” taldea dirrela, edota “Eta Killo Komandoa”... Nahasketa, suposatzen dugu, Eta kitto eta “quillo” andaluziar esaerarekin...

-Beste egunean antzerkira joan eta nahiz eta dibertigarria izan, ba hikaz zegoen eta beno, ba ez ginez askotaz enteratu... Beste batean ere “Tximino Tximista” ikusi genuen ...

-Ikasketa prozesu honetan garrantzia badu ere lehiak. Egun batean Pablo agertu zen txukun-txukun egindako idatzi batekin, hurrengo egunean beste batek egin zuen ondo, horrek sutan jarri ninduen, eta esan nuen “Nik ere egingo dut”...

Galdetu egin genien ea nola erantzuten duen jendeak beraien ikas-prozesuan...

-Mota guztietako jendea aurkitzen duzu; zure egoera ulertzen dutenak, laguntzen zaituztenak, arraro begiratzen dizutenak... denetarik dago, baina orokorrean ondo hartzen dute.



-Halaere, batzutan gora behera handiak ditugu; batzutan zeozer ondo dakizu eta hurrengo egunean ez duzu gogoratzen... Argi ta garbi praktikari esker fin-kotzen da dena. Bestetik ere, bi egun astean sartzen ditugu bakarrik, eta ahal duguna egiten dugu...

-Euskara ikasteak euskal kulturari buruz dauden topiko asko kentzeko balio izan dit; hizkuntzara hurbiltzeak, bertako kultura eta pentsatzeko modua ezagutzea, nola eraikitzen den hizkuntza bat ikustea... Orain hegoaldean galdetzen didatenean euskarari buruz: “Baina ez dauka gramatikarik ez ezer”, edo beste batek dio: “Ez du etorkizunik ere, ea zergatik ez dugu ingelera ikasten...”

-Batzutan galdetzen digute gure semeari buruz; Eta noiz ikasiko du gaztelera?

Pablo naiz, Erbitin bizi naiz eta Salamankakoa naiz

Ni Dabid, naiz, Benicassimgoa eta Ihabenen bizi naiz.

Aurora naiz, Sabadellekoa naiz baina Ihabenen bizi naiz, Dabid, Ona eta Ilargirekin.


Rakel naiz, Burgosekoa naiz, eta Erbitin bizi naiz.

Ni Gabi naiz, Auzan bizi eta Sebillako Dos Hermanastik nator.

Aingeru naiz, Sebillako naiz eta Urritzolan bizi naiz duela hiru urte, Dos Hermanasekoa naiz ere.

Ea koadrilla polit honek lortzen duen artikulu hau ulertzea!





Saharako egoeraren gaineko begirada ezberdinak

Elkarrizketa egin aurreko egunean, berarekin solas egiten minututxo batzuk pasa ondoren, laster ikusi genuen gipuzkoar honek ez zigula betiko diskurtsoa botako. Ideiak argi, esperientzia handia eta mingainan hilerik gabea, Gurutze Irizarrek 15 urtez bizi izan zen mendebaldeko Saharako kanpalekuetan; senarra bertakoa zuen eta bere umeetako bat bertan hezi egin zen.

Erreportaje hau prestatzerako orduan, betiko ikuspegi-tik alde egitea pentsatu genuen erredakzio bileran. Topikoetatik at, beraz, Gurutze Irizar. Elkarrizketa hasi aurretik argi utzi nahi du hau guztia bere iritzia dela, eta ez dela inoren bozeramale.

Turismo solidarioa egiten al da kanpalekuetan?

Kontzientziak garbitzeko kanpainak egiten dira; jendeak uste baldin badu arroz pakete batzuk bidaltzearekin eta umeak udan izatearekin, hori "bakarrik" egitearekin arazoa konpontzen laguntzen duela, akatsa da, azken finean gertatzen ari dena arazo politikoa dena, arazo humanitarioa bihurtu dutela. Arazo humanitarioa bestearen ondorioa da.

Pentsa ezazu kanpaleku batera bidaltzen den arroz pakete batean, zenbat balioko du hemen? Bertara bidaltzerako orduan bere salneurria urrea izango balitz bezala biderkatzen da... Trailerrak erosi behar, Alikanteraino eraman, itsasontziz pasatu Oraineraino, eta gero 2.000 kilometroko bidea errefuxiatu kanpaldietaraino... Hau guztia pare bat eguneko janaria emateko! Askotan gogoratzen dut txikitik "Domund" kanpainak hasten zirenean: "Limosna para los negritos" esaten zen...

Eskualdeko norbaitekin hitz egin nahi genuen, hemengo begiekin bertako egoera ikusi zuen norbaiten iritzia izateko. Arostegiko Juantxoarekin elkartu eta lau hitz eta iritzi eman zizkigun. Honan hemen horien laburpena:

-Saharako egoerarekin betidanik izan dugu erlazioa, bagenekien nolakoa zen egoera. 2011. urteko eguberrietan aukera sortu zitzaigun bertara joateko, HANAS elkarte-ari esker. Dakizuenez, elkarte honek "oporrak



Arazoaren oinarrian dago gakoa...

Jendeak bere buruari galdetu behar dio, zergatik daude hor? Argi eta garbi interes handiak daudelako, mendebaldeko Sahara pobrea izango balitz, ikusiko genuke... Orain arte esplotatua den arrantza eta fosfatuen indusketaz aparte, hasi dira jada petrolio, uranio eta gasaren bila... Frantzia, Espainia eta Marokoren arteko interes jokoa ikaragarria da; ni oso kritikoa naiz Espainiar Estatuaren paperarekin, azken finean, saharar herria sentimentalki askozaz ere lotuagoa dago espainiarrekin marokorrekin baino, eta egunen batean independentzia lortuz gero, mota guztietako langileak beharko dira, enpresak...

Ekonomia handiko kontuak, baina zer egin dezake herritar xumeak?

Nik ematen dudan aholkua, lehenik eta behin da ulertzen saiatzea, arazo politikoa dagoela, eta irtenbidea ere politikoa izan behar dela. Hori jakinda, gero bakoitzak ikusiko du zer egin... Begira itzazu hedabideetan, zer agertzen da Saharari buruz?

Nire herrian behintzat, uda pasatzera etortzen diren umeak, edota "karabana" horietako bat ateratzen denean...

¿Noiz ikusten da mugimendu politikoei buruz zer edozer?

bakean" deitutako ekimena aurrera eramaten du duela denbora dezente, umeak hona ekartzen ditu. Elkarte hauetakoek famili bat bilatu ziguten bertan eta bertara gerturatu ginen; hasieran harrigarria izan bazen ere, aste betez egon ginen "Hamada" horretan, basamortua basamortuaren barruan... Sorpresa handia hartu nuen bertako jendeak duen jarrera positiboa ikustean; dagoen egoerarekin tinko eta alai mantentzen dira.

-Aurrekoarekin lotuta, azpimarratu nahi dut oso ondo antolatua daudela; adibidez, banaketa oso ondo egiten da, dilistak baldin badaude, denek dute dilistak... Bertan egon nintzenean itxura hori eman zidan, oso ondo antolatuta daudela, bertako jendeak ere hori komentatzen zuen.

-Herri honen dependentziari buruz galdeturik hau da

Juantsok erantzun ziguna:

Gai konplexua da hau; oso eremu irmoa da, ezin da ezer ekoiztu, pentsa, hondartzako hamar metro uzten badizute bezala da eta esaten dizute, hala! egin zerbait... Pasa den urtean 2 egun soilik egin zuen euria, pentsa... Bertan ezin da ezer produzitu, dena ekarri behar da kanpotik. Laguntza humanitarioari esker bizi dira, hori argi dago, bestela ezinezkoa izango litzateke kanpaldietan bizitzea; hori bai, beste leku batzuetan, adibidez alde "askean" bai egin daitezkeela gauzak, gameluak eramaten dituzte bazkatzera... Hala ere oso alde txikia da hori.

-Irtenbiderik? Frantzia eta Espainia dira giltza dutenak; Marokorekin aliatu ziren aspaldi, laguntza handia ematen diete, bi estatu hauek lagunduko ez balute, egoera guztiz ezberdina izango litzateke... Interes asko daude erdian, adibidez, arrantzarena, arrain-sarda erraldoia dago Saharan mendebaldeko kostalde horretan, eta interesak oso

handiak dira... Enpresa espainiarrek eta frantziarrek hitzarmen asko dituzte... Diruan dago gakoa.



Badadi, Saharaiar herriaren Ordezkaria Nafarroan

Zein da kanpalekuen egoera?

Egoera oso kruela da, itxoiten gaude, etsipena sentipena dago kanpoko egoerari begira. Ez dute Nazio Batuen ebazpena betetzen, erreferenduma ez da egiten... pentsa esazu popuazioak ia 40 urte exiliaturik daramala, gosea jasaten... Egunak eta urteak aurrera joan ahala krudelago egiten da itxoitea...

Saharaiar herria dependientea bihurtu al da /dugu?:

Ez dut horrela denik uste, dependentzia badugu, bai. Egia da elkartasuna jasotzen dugula, laguntza da gure erresistentzian. Egunero pentsatzen dugun bakarra da: "Noiz itzuliko gara etxera, noiz ikusiko dute gure semeek gure lur eta ibaiak eta ez harritzar hauek..."

Gure herriaren askatasunean pentsatzen dugu bakarrik, noizbait presionatu dugu nahikoa Maroko, eta gainera, armetara ez dugu itzuli nahi... Bakearekin gaude eta ez biolentziarekin. Marokoren pasibitateak ez du batere laguntzen...

Gurean, nik uste, ez dugu itxoiten inork etortzera, beti saioatzen gara gure errealitate eta azpiegiturak eraikitzen...

Lehenengo mementutik hasita, estatu independente bat prestatzen egon gara, gure gizartea eta egiturak prestatzen egon gara, libre, demokratiko eta soberanoak izan arte. Eskolak, hospitaleak, administrazioa, Arabiar Saharaiar Errepublika Demo-

kratikoa sortu, gobernu bat sortu ere bere ministrarekin ere, bilatu dugu kanpoko herrialdeen onarpena, parte aktiboa gara Afrikar Batasunean, munduko 87 herrialdekin erlazioak ditugu...

Bestetik, eta oinarrizko azpiegiturei begira, ura, hezkuntza eta osasuna dohainekoa da. Dagoen janaria banatu, haurdun dauden emakumeen babes ekimenak ere aurrera atera ditugu, umeen hezkuntzan laguntzeko planak, agureak laguntzeko... Ahal dugun moduan moldatzen gara.





Urtero bitan egiten da, udazken eta udaberriaren hasieran. Bababuruko Kontsumo Sareak antolatzen duen eguna ailegatzten denean, armairuak begiratu, behar ez dugunaz pentsatu eta famili eta lagun artean egun polit bat pasatzeko ordua da.

Aurtengo egunekoan, zorionez elurak eguzkiari egin zion lekua goizeko hamaiketean edo, eta ohitura den bezala, arroparen elkartrukerako "Denda Gratix"-a herriko kalean jarri zuten. Nahi zuten guztiek arropa utzi eta hartu ahal izan zuten.

Kontsumo Saretik azpimarratu digute egun guztian jendea pasatzen ibili eta, noizean behingo "desfile" bitxi bat sortu zela. Arropaz aparte, beste erabilera anitzeko objektuak bazeuden elkartrukerako prest. Antolakuntzatik ere azpimarratu nahi izan dute egunean hartzen ez dena bildu eta Emauseko Trapuketarietara eramaten dela.

Goiza aurrera zihola, gosea ere handitzen joan zen, normala den moduan. Bazkaria, beraz, prestatzen joan ziren. Erabilitako produktuak kooperatibakoak ziren, eta, gainera, gehienak bailarakoak. 65 pertsona inguru bildu ziren, haurrak eta helduak, txikiak eta handiak.

Jan egin zuten menua oso interesgarria eta oparo iruditu zaigu, beraz hemen duzue:

Aza entsalada, ondo nahaskia, kardua, borraja, ziza pate, barbantzu pate, arrosa berdukin, txekor eta zaldiko gisatua eta bukatzeko gazta, intxaur eta hurrak dastatzeko! Hori guztia gusturago dastatzeko, bertako sagardoa ere bazegoen.

Bazkalostean, tripa bete zegoelarik, burua ideia interesgarriekin betetzeko aukera; kafe-tertulia zegoelako. 40 bat pertsona elkartu eta "Som Energia-Energia Gara" kooperatibako Andoni Romeorekin hitz egin zuten; irabazi ekonomikorik gabeko kooperatiba honetan, "gaur egungo energi modeloa aldatu eta eredu % 100 sostengarri izatera ailegatzeko du helburu, eta noski, geroz eta jende gehiago biltzea. "Fiare" deitutako banka etikoari buruz egon ziren hitz egiten. Hurrengo lerroetan ikusi ahalko duzue aukera ezberdinak...

Arratsaldea ideia, kafe eta pastekin bete zen, eta zortziak aldera arte energia, kooperatiba eredu, sostengarritasunaz... hitz egiten luzatu ziren eguzkia erori arte.

<http://www.somenergia.coop/>
(<http://www.proyectofiare.com/web/>)

Banka Etikoak: Mugi zure dirua!

Badaude zenbait gauza ez direnak azaldu behar, zertarako kontatu zuk jada dakizuna...

Hementxe dituzu bi proposamen eta zenbait aukera:

Lehena da gure aurrezki kontuak, inbertsio edo pentsio funtsak ixtea eta gure akzioak saltzea.

Bigarren ekintza da banka etikora eta kooperatibara (Fiare, Coop57, SomEnergia, CASX) eramatea eta hori fondo-gordailu berriak irekitzea. Hona hemen aukera batzuk fondo-gordailuak transferitzeko eta, aldi berean, mugimendu kooperatiboak zabaltzeko eta handitzeko:

Fiare. Banka etiko kooperatiboko proiektua, Europan. Urte batzuetatik hona onartzen ditu banku-gordailuak, eta proiektu sozial eta kooperatiboak laguntzeko maileguak egiten ditu. Aurtengo azken hiruhilekoan, kontu-korronteak ere onartzen hasiko da.

Argibide gehiago: <http://www.fiare.org>

Coop57. Zerbitzu finantzario etiko eta solidarioko kooperatibak aurrezkiak eta ekonomia sozialeko proiektuendako maileguak kudeatzen ditu, hau da, printzipio etiko eta solidarioetan oinarrituta lan-okupazioa, kooperatibismoa, elkartasuna eta iraunkortasuna sustatzeko proiektuak.

Argibide gehiago: <http://www.coop57.coop>

Som Energia. Energia berriztagarriak produzitzeko eta kontsumitzeko kooperatiba. Ez da banku ez finantza-erakunde, baina bazkideen aurrezkiekin energiaberriztagarrien kooperatiba-proiektuak sortzen ditu.

Argibide gehiago: <http://www.somenergia.coop>

CASX. Sareko Autofinantzazio Sozialeko Kooperatiba. Hasieran dagoen proiektua da, asanblearioa eta interesik gabekoa; bazkideen aurrezkiak mailegatzeko proiektu autogestiatuendako eta haien printzipioekin bat datozen proiektuendako, Iraultza

Integralaren antzekoak direnak. Ekintza egiten den hilabetean, haren lehen urteurrena beteko da.

Argibide gehiago: <http://www.casx.cat>



AUPA, AUPA! ESKERRIK ASKO LAGUNOK

Joan den urtea urte latza izan zen euskal aldizkari, euskal agerkari guzientzat.

Nafarroako Gobernuak, bere azken urte hauetako politika segituz, azkeneko dirulaguntza kendu zigun. Azken euroa lapurtu zigun. Euskararen kontrako bere politika ertzaraino eraman zuen. Bitartean, erdarazko telebistei 2,5

miloi euro eman zizkien. Horrelakoa da azken urte hauetako moda, pobreaki kendu aberatsari emateko. Irratia hertsitu genuen, Pulunperekin ahal bezala iraun.

Guzi honi bueltako emateko, ari gara gauzak asmatzen, lanean su eta gar. Asmatuko dugu? Orain bertan Zeuk aukera Zeuk erabaki kanpainan sartuak ibili gara eta nahi adinako arrakasta bildu ez badugu ere, 450 atxikimendu bildu ditugu. Ez da asko, baina gutxi ere ez. Euskal hila-betekari eta irrati baten beharra zerbaitzuk garbi ikusi duzue, zuen laguntza eman diguzue. Odieta aldean, uste ez ge-

nituen bi boluntario anonimok 8 eta 4 firma bildu dizkigute. Hala ere Imotz eta Basaburua aldean topatu dugu laguntza gehien: Garbisu senar-emazteak, Kizkitzak eta Haritzek, Muskitz eta Muskiztik kanpo 31 firma bildu dituzte; Basaburua aldean, berriz, Igoan, Leontzio Huartek 20; edo Maider Astizek Itsason, 17. Eta Feli Alemanek, Iruñean, Arturo Kanpion euskaltegiaren alde leher bildu ondoren, guretako eskatu eta beste 35 firma bildu ditu.

Denak aipatzen ez gara hasiko, ez dugu lekurik. Bego honetan.

Denak ez aipatu arren, eskerrik beroenak lan honetan, euskararen alde, Pulunpe eta Esan Erran Irratiaren alde aritu zareten guzi-guzioi. Zuek gabe, ezinezkoa zatekeen.

Hobetuko dugu Pulunpe, hobetuko dugu Esan Erran Irratia. Laster hasiko gara ikusten eta entzuten. Aurrera egingen dugu zuen denon laguntzarekin. Nafarroako Gobernua euskararen eta euskaldunon kontra badugu ere, aurten urte hobea izanen dugu zuei esker. Aupa! Aupa!

can 
ZUK AUKERA
ZUK ERABAKI



Mundua modu ezberdin askotan begiratu daiteke, egunero begi ezberdinekin begiratu, edota begiak ixten dituzun une oro, ikuspuntua ere itxi eta irekitzen da, kamera baten obturadorea bezala.

Argazkilaritzak bizitza modu berri batean irudikatzeak aukera ematen digu. Egundero pasatzen zaren errepidea, edota betiko herriek forma eta erlazio berria hartzen dute begirada aldatzean. Martxoaren bukaeran, eskualdeko lagun talde batek, Ametza elkarteak antolatutako argazkilaritza ikastaroan parte hartu zuten. Bi goizetan argazkilaritzaren oinarriko arauak

gainbegiratu, Photoshop programa informatikoarekin lehenengo pausoak eman, argazki mordoa egin, eta batez ere ondo pasa zuten... edo hori espero dugu behintzat...

Udaberria irauten duen bitartean, eta gure paisaia kolore idor eta horietara pasa baino lehen, oraindik ere beste ikastarotxo bat antolatuko dugu: egingo dugu bi arratsaldetan, eta nola ez, dohainik izanen da... Interesa baduzu, edo zer edo zer galdetu nahi baduzu, idatzi pulunpe @gmail.com helbidera.



Ama
Hizkuntza

Ametz Arzallus, Korrika Mezua

"Ama hizkuntza esaten dugu hizkuntzaz erditzen garelako. Erditzen esaten dugu amak gu egiten gaituenean guk ere bera egiten dugulako ama, elkar egitea da erditzea. Antzeko zerbait gertatzen da hizkuntzarekin ere. Hizkuntzak egiten gaitu gu eta guk egiten dugu hizkuntza. Elkarren lekuko gara. Elkarri emanez bizi gara. Hizkuntzak guri eta guk hizkuntzari, arnasa eta izatea.

Ikasten ari denak ematen dio irakasten ari denari zentzua. Irakasten ari denak ematen dio hiztun zaharrari norabide berri bat. Hiztun zaharrak eman behar dio ikasten ari denari eskua. Denok eman behar diogu elkarri euskara.

Euskara da ene ama hizkuntza. Baina ama hizkuntza zer da? Ama hizkuntza ez da lehenik ikasten den hura, ez da amaren magalean jaso genuen hura, ama hizkuntza da, enetzat, pentsatzeko baliatzen dugun hizkuntza. Gure arrazoiak eta irudiak nola fabrikatzen ditugun han dago gure ama hizkuntza. Eta posible da, bizitzan zehar, euskara ama hizkuntza bilakatzea, euskaraz pentsatzen ikastea. Bide horretan zatoztenoi miresmen eta goraintzi, eta norbaitek esaten baldin badizue zuek euskaldun berriak zaretela, edo euskara ez dela zuen ama hizkuntza, esaiozue zaharra izatea ez zaiola inori gustatzen, eta bide batez, esaiozue, ama hizkuntza ez dela lehenik ikasten den hura, pentsamendua sortzen duen bakoitzaren hizkuntza baizik.

Herri hau ere euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen. Hautatzen diogun ama hizkuntzaren arabera dago gure herriaren geroa. Erdaraz mintza araziko gaituztela? Badakigu hori. Herri honek pentsatu beharko du zerbait erdarari buruz, baina herri hau ezin da pentsatu erdaraz, herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen.

Herri bat erditu nahi badugu, inork erditzekotan, ama hizkuntzaz erdituko gara."

Ttakun elkarteak Lasarten duela denbora dezente dabil lanean, euskararen erabilera, teknikak, ikerketak, taldeak... sustatzen. Azkenaldian gurera Nahia Inza teknikaria etorri da "Taldea Sarea" deitutako ikastaroa ematera. Hizkuntzaren erabilera sustatzeko tresnak identifikatu eta hizkuntza jorratzea da helburua, jakinda "errezeta magikorik" ez dagoela. Ikus ditzagun beraien planteamenduak modu hurbilago batean.

Basaburuko Euskara Batzordeak prestakuntza saio bat ematera deitu zuen Ttakun Elkarteak duela pare bat urte. "Hitz egiten hasi ginen kezka zegoela euskara erabilera murriztazengatik. Horren inguruan, euskara ordezkariarekin biltzen hasi ginen, erabilerari begira zailtasunak zeudela ikusita". Euskara sustatzea, kalean gehiago entzun dadila. Hortik hona zenbait saio eta proiektu ezberdin egin dituzte elkarrekin: Adibidez, "Gurasoekin jolasean": Ikastetxeko gurasoei zuzendua zegoena, hauei lanabesak ematea zuen helburu, adibidez "cohecito leré" abestu ordez, euskal kantuak abesteko... "Horren ostean, berriro arduradun taldearekin hasi gara". Hitz egiten duena Nahia Inza da, Ttakun elkarteakoa. "Gure metodologiak estrategiak eta tresnak ematen dizkigu haur eta gazteen ohiturak aldatzeko hezitzaileekin edota irakasleekin (erreferenteekin) hartu emana dagoenean. Baina, erreferentzia hau galtzen denean, aldaketa talde barruan eman behar delakoan eta taldeak hizkuntza erabileran duen garrantziaz jabetuta sortu da Taldea Sare.



Ikastaro berri honen helburua, euskara tresna izango duten talde erreferenteak sortu eta dinamizatzea da, "mobilizatzea herrien mugimenduaren baitan". "Taldea horiek sortu edota identifikatzea da erronka". 10 bat pertsona bildu ziren ikastaro honetan; euskararekiko afinitatea duten pertsonak eta udal ordezkari eta arduradunak izan ziren Basaburuko udaletxean.

"Saioa sei ordukoa izan zen eta bi saio ezberdinetan banatu da. Hasieran hizkuntza erabileran eragiteko oso garrantzitsua den aldagai bat landu dugu; "moda". Parte hartzea oso ona izan da, bai jolas eta dinamika ezberdinetan, bai eztabaidetan. Eztabaida batzuetan asko kostatu zaigu gaia berriz ikastaroan zentratzea. Eztabaidaren mamiak gaiarekin erlazioatuak zeuden arren kasu askotan aterabiderik gabeko puntura edota gehiegizko zehaztasunetara jotzea ekarri du". Zioen parte-hartzaile batek. Azken finean guztiok badakigu bailararen hizkuntza errealitatea homogeneoa ez dela, aldatzen dela herriz herri, geografikoki sakabanatuak daudela, "beraz, beharrak eta planteamenduak koku eta pentsatu behar".

Zalantzarik gabe, beharrezkoak dira esfortzu guzti hauek gure hizkuntza sustatu, mantendu eta indartzeko. Ikastaroko beste partaide batek idazten zuen bezala: "Oraindik hainbat puntutan zalantzak ditut, praktikan ez baitakit nola gauzatuko diren, ez eta gauzagarriak diren ere". Hala ere, animo, mereziko du eta saiatzeak!



Nahia Inza teknikaria

ran duen garrantziaz jabetuta sortu da Taldea Sare.

Bisita ezazu Webgune Berria!

IPARMANK
Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea



Politika munduan mugimenduak egon dira azkeneko hilabetetan. Mankomunitatearen burua nor izango den gora eta behera ibili dira. Roberto Pascal basaburuarra aukeratua izan da Bildu alderditik. Helegite bat jarri dezake oposizioak oraindik ere, epearen barruan gaudelako. Hala ere, dauzkan plan eta ideiei buruz solastu gara berarekin.

-Nola ailegatu zara Manomunitate buru izatera?

Ultzamako Nekane osasun arazoak dela eta utzi behar izan zuen presidentzia, aztertu genuen egoera eta beharrezkotzat ikusi genuen orain arte lan egiteko moduari jarraipena ematea.

-Zein da aurkitu duzun egoera?

Alde batetik, oso egoera txarra aurkitu dugu Nafar Gobernutik murrizketak besterik ez zaizkigu etortzen, batez ere, berdintasunean eta lan babestuan, niretzat gaur egun gehien babestu behar ditugunak, beste aldetik, langileengandik eta taldean lan egiten dugun bokaleengandik laguntza handia jaso dut. Erran behar da taldeka lan egiten dugula eta arlo bakoitzean 2 edo 3 bokal gaudela. 10 bokaletatik 6 ari gara lanean eta 6 bailaretik 5.

-Zein dira dauden erronkak?

Gaur egungo erronka nagusia da murrizketak ahalik eta gutxien nabaritzea da, badakit zaila dela udalen konpromezua behar delako eta jakina da ez gaudela zuziriak botatzeko moduan. Baina esfortzu bat egin beharra dago eta horretarako baliteke kontzejuei laguntza eskatzea. Gaur da momentua gordeta dugun dirua erabiltzeko guztion onerako eta aukera ezin hobea ikusten dugu kontzejuen aldetik. Gauza izanen zen hauek prest egotea diru bat jartzeko jende gehio kontratatu ahal izateko babesturiko gizarte laneko proiektuan, jakinda gainera zonaldeko jendea dela, auzokideak azken finean.

-Zein dira zuen proiektuak?

Gaur egun gure proiektua da duguna mantentzea eta zaila, adibidez, berdintasunean ez digute eman

dirurik ekintzetarako eta udalek jarri behar izan dugu iaz baino zertxobait gehiago, hala ere, irudimenarekin eta jendearen konpromesuekin aurrera eraman behar ditugu ekintzak.

Estatutoak berri beharko ditugu oso zaharrak direlako eta bokalak pareak garenez arazoak sortzen dira, hori lehen bait lehen konpondu beharko dugu.

-Zerbait gehiago azpimarratu nahi duzu?

Gehitu nahiko nuke gustatuko litzaidakeela Pulunperekin harreman estuago izatea informazioa, eskaerak, kekkak, zalantzak... argitaratzeko eta horrela gizarte zerbitzuak jendearengan hurbiltzeko.





E
M
M
A
K
U
M
E



MARGOAK

Jauntsarasko
Apeztegiberrin
ikusgai



Margolaria: Feli

Azken aldian langabezia datuek nabarmen egin dute gora. Zifra ilun horietatik aldendu nahian, asko dira beraien enpresa sortzea burutan darabiltenak. Aldez aurretiko esperientzia, hobbyren bat, ezagutza... oinarrian hartu eta pausoa ematen dute. Auto-enplegua langabeziatik irteteko modua da. Pertsona horiek ez dute pausoa bakarrik ematen. Cederna-Garalurrek, Nafarroako Mendialdeko garapen elkarteak, laguntza eskaintzen baitie ekintzaile izan nahi duten pertsoneri.

Anima zaitetz!



Javier Jaurena Mezquiriz

Aurreko lanbidea: Eraikuntzako langilea

Adina: 51 urte

Auto-enplegua: Leitzako estankoa-koaren ardura bere gain hartu du.

Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?

Lantoki batean eta obretan aritu izan naiz lanean, baina azken urte eta erdian ez nuen inon lanik topatzen Era-tsun inguruan eta sektore horietan ez zegoen lan eskaintzarik. Ustekabean jakin nuen Leitzako estankoa-ren jabeak erretiroa hartzen zuela eta norbaiten bila ari zirela. Orduan, lizentzia hori eskuratzeko zerrendan izena ematea erabaki nuen, saiakera egitea.

Nola izan da prozesua?

Jende aunitz aurkeztu ginen eta zerrenda horretan, Leitzako jendea ere apuntatua zegoen. Herritarrei lehenitasuna emanen zietela uste nuen... Horregatik, ez nuen aukera baztertu baina ez nuen esperantza haundiegirik ere egin. Azkenean zortea aldeko izan eta niri eman zidaten baimena.

Cederna-Garalurrek zertan lagundu zaitu?

Hasierako horretan oso baliagarria izan da beraien laguntza. Baimen ugari behar dira eta nik ez nekien nora jo behar zen. Leitzako udalean, Madril... eskatu beharreko guztiak prestatzen lagundu didate. Orain, Madrilgo baimenaren esperoan gaude aurrera egiteko.

Lanbide aldaketa handia da zure kasuan...

Hala da, ez dut ohiturarik dendan aritzeko, baina saiatu egin behar da. Errespetu apur bat ematen du, baina ilusio handia dut. Oraintxe bertan daukadan ikara handiena baimena emanen ote didaten da.

Lokal berri bat hartu dugu errentan eta behin baimena lortuta, lanean hasi eta etorkizunak zer dakarren

ikusi beharko da.

Angela Irisarri Elizagoyen

Aurreko lanbideak: Ahate granja batean eta Informatika zerbitzuetan

Adina: 41 urte

Auto-enplegua: Landako oilo arrautzen haztegia jarriko du Etxalarren.



Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?

Lana niretzako egiteak, nire nagusia ni izateak bultzatu nau pausoa ematera. Biak probatu ditut, niretzat eta baita besteentzat lan egitea ere. Autonomo izanda, arazoak nireak dira, baina askatasuna ere bai. Bi haur ditut eta horrek lana eta amatasuna bateratzeko aukera ematen dit. Inplikazioa eskatzen du baina, abantailak handiak dira. Gustuko duzun horretan lan egiteko aukera ematen baitu.

Nola sortu zitzaizun zehazki enpresa horren ideia?

Nire abiapuntua aurretiko esperientzia izan da. Ahate haztegi bat eduki nuen duela urte batzuk eta oiloekin lan egiteko ideia nuen aspalditik. Arrautzak erosiko zituen eroslea topatu genuen eta orduan, duela hiru urte paper guztiak martxan jartzen hasi ginen. Orain baimen guztiak dauzkat eta finantziarioa prestatzen ari naiz. Hori lortutakoan haztegia eraikitzen hasiko gara. Datoren ikasturterako martxan izatea nahi nuke.

Zein paper izan du prozesu honetan Cederna-Garalurrek?


Eroslea topatu genuenean, Cederna -Garalurrera joan ginen zalantzak argitzera. Egin beharreko pauso guztiak esan zizkidaten beraiek. Antolatu dituzten ikastaroak ere egin ditut. Bertzalde, ekintzaileen kedadan ere parte hartu nuen. Aski interesgarriak dira guztiak eta bide berriak irekitzen laguntzen digute. Enpresa munduan sartzen zara, antzeko egoeran daudenekin egon eta beraien esperientziak entzuten dituzu. Une horietan beharrezko laguntza eta babesa ematen dizute.

GARAPEN AGENTEA

Elena Irigoien 617 60 93 28

lekunberri@cederna.es





*Denbora ez da urrea
Urreak ez du ezer balia
Denbora bizitza da
José Luis Sampedro*







 Amaia Zalba

Aste honetan egunkarietan ikusi dudan irudi honek txoratu egin nau. Egia esan, txoratu baino, nazkatu eta sutu egin nau.

Peter Sagan txirrindulari eslovakiarra omen den batek, 23 urte eskas dituenak, nahiko famatua omen dena eta ona bere jardueretan, Flandeseko Tour-a irabazi du. Baina nahiz eta saria jaso, eta hori bere baitan notizi bat izan, aste honetan jarrera sexista eta emakume batekiko errespetu falta bat izateagatik famatu egin da lagun hau.

Errespetu falta hori eta inguruan esandakoak dira sutu egin nautena, ez baita izan duen jarrera soilik,

baizik eta hori egiteko berak sentitu duen eskubi-dea, eta jendarteak orokorrean "naturalizat" edota "bromatizat" hartu izanaren kontua.

Alde batetik izan duen jokabidea da aztertzekoa, baina hori argazkia ikusita, norberak azertu dezala. Nik hemen garrantzitsua ikusten dudana zera da; gizon honek emakumearen ipurdia ukitzeko eskubide guztia duela pentsatu izana, eta eskubide hori erabili izana. Honen atzean emakumeekiko errespetu faltaz aparte, hauekiko nagusitasuna sentitzen duela adierazten du: "nahi dudana egin dezaket, eta nahi dudanarekin" betiere emakumezkoa izanda, noski. Baimena izango balu bezala jokatu du, hori



BERDINTASUNA

sentitzen duelako, eta nagusitasuna diot, ziurrenik ez baitzion bere nagusiari egingo, adibide bat jartzeagatik. Patriarkatuaren eredu garbia dugu hemen: emakumezkoak, gizonezkoen zerbitzura.

Eta zerbitzura, kasu honetan argi eta garbi, emakumezko hauek saria ematearen eginkizuna dute-lako, edota, saria bera dira? Zalantza hau sortu zait hau ikustean, eta hau da nik uste zalantzan jartzekoa. Emakumezkoak (itxura konkretu batekoak) dira gizonezkoen kirol batzuetan sari emariak, eta honek zer irudikatzen duen da zalantzan jartzekoa dena. Nire ustez ez da beharrezkoa Tour bat irabazita, bi emakume fin eta lirainek musu bana ematea, saria bestelakoa izan beharko luke. Honekin kirolari garrantzia ez zaio kentzen, ustez gehiago gorai-patzen da, baina holako irudi eta gertaerekin emakumezkoen gutxiagotasuna gorai-patzen da, objektu bihurtzen gaituzte berriz ere.

Aipatzeko beste kontu bat emakumezkoak izan zuen erantzuna da, eskua kentzen saiatu zen arren, ondoren ez baitzion deus esan, eta irribarrez erantzun zion Sagan txirrindulariari. Ez dut neska honen jarrera epaitu nahi, azpian agian beldurra, jokabidearen onarpena edo bestelakoak egon daitezke-lako. Baina hau piska bat hausnartzekoa iruditzen zait. Hasteko, gerta daiteke emakume honek bere lanaren eginkizun bezala ulertzea musu ematearena sari bezala, eta, hala da, baina haratago joanda, bere gorputza beste batek berak baimenik eman gabe ukitzea "normaltzat" hartu dezakeen susmoa daukat, lan horren barne balego bezala. Baina gerta daiteke ere beldurra sentitu izana, edo zer erantzun jakin gabe gelditu izana. Erantzunez gero, zer esango zuen prentsak berak modu berdinez edo bere defentsan erantzun izan balu? Ziurrenik gorai-patu baino askok mespretxatuko zuten, edota ahozabala bezala geratuko zen jende aurrean.

Gustatuko litzaidake jakitea ere, emakumezkoei

kiroletan sari bat ematerakoan zein den prozedura, gizonik ba al dago musuren bat ematen? Nik ez dakit, ez baitira holakorik ikusten prentsan, emakumezkoen kirola, beste hainbat gauza bezala ezkurtuan dihardutelako.

Eta azkenik, notizia emateko modua aipatu nahi dut. Askotan pasatzen da notizi bateko irudia eta bertako testua ez datozela bat, edo argazkiarekin zerbait adierazten dela eta hitzekin beste zer edo zer. Kasu honetan, niri hau pasa zitzaidan, egunkaria interneten bidez irakurtzen ari nintzela argazkia ikusi nuen eta notizian sartu nintzen. Sorpresa ederra hartu nuen irakurtzen hasi nintzenean, ez baitzen Sagan honen jarreraz ari, baizik eta berak lortutako postuaz eta aurretik izandako bestelako garaipenaz ere. Azkeneko pare bat lerrotan irudiari egiten zion erreferentzia, esanez polemika handia zabaldua zegoela txirrindulariak izandako jokabidearekin, sexista edo matxista zela esanez. Egia esan, notizia horren ingurukoa izango zela uste nuen...

Eta bertan eta bestelako sare sozialetan ondoren irakurritako iritziak ere harritu ninduten, batetik jokabidea salatzen zituztenak zeuden, nola ez! Baina bestetik, "bromatzat" hartzen zutenak zeuden, eta hauek feministen betiko kontuak zirela esaten zuten, eta jokabidea ez zela hainbesterakoa izan... En fin!

Holako irudiak (emakumezkoak sariak ematen) ikusten ditugu eta ez zaizkigu arraro egiten, oso ohituak gaudelako, eta horietako batean mugaz haratagoko jokabide bat dagoenean (kasu honetan bezala, ipurdia ukitzearena) ordun larritzen gara, baina dirudienez batzuk bakarrik, eta ahozabal bezala etiketatzen gaituzte, baina niretzako argazki honen atzetik egin beharreko hausnarketa sakona dugu, eta haxe zen artikulua honen helburua.





Gaur kontatuko dugun kontua 1835. urtean gertatua da. Bi urte pasatxo lehenbiziko gerra karlista hasi zela, 1833ko urriaren 5ean hasi baitzen, Fernando VII.a hil eta bere alabatxoa, Isabel II.a tronuan jarri zutenean.

Legez honi tokatzen, baina batzuk nahi ez, Carlos bere osaba behar zuela, honi zego-kiola errege izatea. Gure Herrian ia denak batean Carlos V.ren alde egin zuten. Karlis-ten leloa zen *Dios, Patria y Rey*, baina honi Euskal Herrian Foruak gehitu zizkieten, hau da, *Dios, Patria, Rey y Fueros*. Gure Legeen alde, gure "independentiaren" alde ere ariko ziren gerran. Eta euskaldunak saiaturiko ziren batez ere gerra luze honetan, 1833-1840 bitartean, ia 7 urteko gera izan baitzen. Eta Euskal Herrian bezala gerra izugarria izanzen zuten, batez ere, Katalunia eta Valentzian.



Angel Astizi, ia-ia Juanikok kontatzen duen bezal-bezala. Hala ere, Joxe Angelek Alkatea *Iturriko* etxekoa zela esaten zuen beti. Eta hil zuten tokia ere zehatz-mehatz, *Gexur Aldapan* zela zioen, *Beltranezarrearen* azpiko aldean.

Noiz izan zen? Nor zen alkatea? Nor ziren hiltzai-leak? Zergatik hil nahi zuten apezka? Alkateari zer agindu zioten esateko apezari? Oraingo, galdera asko erantzunik gabe. Eta "erdaldunek izain yittun ta" hori ere...

Horrela, hasi gara paperak ikusten eta horra zer ageri den elizako paperetan, heriotza agirian:

"El dia siete de octubre de mil ochocientos treinta

y cinco a las siete de la noche llegaron a este Lugar ocho hombres armados, llamaron al Regidor Juan Jose Guelbenzu con pretesto de entregarle oficios, y a poco rato que lo llevaron se oyeron varios tiros en la calle, y a pronto huyeron dejando muerto al expresado Juan Jose con varias heridas en la puerta de Beltrarena vieja; y el dia siguiente fue depositado su cadáver en la Iglesia Parroquial de ese Lugar y sepultura de su cassa de Iturricoa y para que conste, firme=Don Joaquin Mariano Urriza="

Hila Juan Jose Guelbenzu Eraso zen *Iturriko* nagusia. 58 zituen, ezkondua, umerik gabea eta herriko Alkatea zen urte hartan. Eta sakristaua ere bazen. Eta hiltzai-leak ez ziren hiru gizon kontatzen den bezala, zortzi baizik. Zortzi gaizkile ziren Etxalekura agertu zirenak eta ilundu ondorettoan azaldu ziren beren tzarkeria egitera. Tiro bat baino gehiago eman zizkieten eta *Gexur Aldapan*, *Beltranezarre* ondo-ondoan hil zuten.

Apezka, Don Joaquin Mariano Urriza Orderiz, **Dorrotoko** semea, 56 urtekoa eta aspalditik herriko Parroko zena, 28 urte zeramatzan eta. Heriotza agiria oso motz idatzi zuen, ez zuen gauza handirik kontatu. Beldurra

Orain urte asko Etxalekun alkatea hil bide zuten. Askotan entzuna. Azkeneko aldiz entzun nuena herriko ostatuan izan zen eta Juaniko Erviti Aldareguia (Zapañiñene) zen kontatu zuena.

Gutxi gorabehera horrela kontatu zuen:

Hiru gizon etor'ben yittun herrire apezka hiltzeko asmoakin biño apezak ez iki atarie. Ordun, alkatias galdetu omen ziten. Alkatia Mikeltxenekoa ben yun eta hau hartu eta beis apezitxa.

-Kask, kask, kask, -atarie jo men ziten.

-Nor da? -Apezak barnetik.

-Ni naiz, biño ez beza atarie iki, laun txarrakin heldu naiz-ta.

Apezak atarie iki ez, ta lapurrek zerbatt arraro sentittu eta gizona hartu eta goraxau iaman omen ziten. Eta ia ze esan zion, ta ia ze esan zion, dui'kabe entendittu ez, erdaldunek izain yittun ta... Azkenian, tiro bat eman hil'ta utzi ziten be'hartan.

Juanikoren kontu honetaz ttikitatik zer edo zer entzuna nien ene lagunei. Eta geroago, gaztetan, Joxe

gauzak argiago jartzeko? Dударik ez dugu hala izan zela historia hau bere denboran kokatzen badugu, karlisten gerra baitzen hemen. Eta hemen esaten dugunean, hemen da, gaur Etxalekun, bihar Berueten, etzi Ilarregin eta etzidamu Olaguen. Horrela zen gerra hura. Eta apezak jar zezakeen askoz ere gehiago, baina ez zen ausartu, bai baitzekien nor ziren hiltzailak eta bai baitzekien bera hiltzera etorriak zirela. Bada ez bada, liburuak noizbait ikustera etortzen bazitzaizkion, hobe deus ez jartzea. Beldurra zen nagusi gerra ikaragarri hartan; beldurra bai, baina kemena ere

bai, gure aurrekoek erakutsi zutena.

Heriotza hau gertatu zenean, gerra bete-betea zen, tropa karlistak (ia guziak hemengoak) eta liberalak (Madrildik Gobernuak igorriak) hemen zebiltzan, gora eta behera, gerra odoltsu hartan. Egoera hartan izan zen gaur kontatu dugun historia hau, gerra kontu bat da, azken batean.

Eta bukatzeko, sumatzen genuena, liberalak izan ziren Juan Jose Gelbenzu hil zutenak, baina gaurko aski dugu, hurrengo batean emanen diogu historia honi bukaera.

Zumalakarregi handia



Tomas Zumalakarregi Imaz karlisten buruzagia. Ormaiztegi semea eta 1788ko abenduan 29an jaioa. Euskal Herrian ez da horrelako militarrik izan inoiz. Frantsesen kontrako gerran ibilia (1808-1814) Eta ondoren, ejertzitoan zenbait kargu izan ondoren, koronel kargua erdietsi zuen. Gerra karlista hasi zenean, Iruñean bizi zen baztertua eta gerrara atera zen bertatik 1833ko azaroan. Hogei hilabetez soilik, izugarrizko fama hartu zuen Europa guzian. Hogei hilabete karlisten buruzagi eta epe horretan karlisten armada beti hazten, beti goraka, beti irabazle... Gobernuak hona igorri zituen jeneral handi-mandi guziak garaitu zituen, Madrildik bidali ejertzito indartsuenak txikitu zituen. Bilbo, liberalen eskuetan, inguratzea agindu zion Carlos V.ak eta han zebiltzen, setioa ikuskatzen, tiro bat hartu zangoan eta hil egin zen 1935-06-24an Zegaman. Sendagarria zen zauria zuen baina sendatzen asmatu ez eta hil zen Petrikilo (1) deitzen zuten sasi-mediku batek operatu ondoko orduetan.

Gerra honek Zumalakarregiren ondoren ere luze iraun zuen, baina ez zen izanen ordura arte bezala. Luze jo zuen gerrak, oso luze, ... 1840ko ekainean bukatu zen arte. Bai, euskaldunok gerra galduz bukatu genuen eta gerra ez ezik foruak ere bai. Zumalakarregi bizi izan balitz! Zenbaterik ez ote zuen esan hori! Hori esan izan da askotan, ezintasunaren, derrotaren, Euskal Herriaren txikizioaren negarra besterik ez dena.

(1) Petrikilo. Kurandero horren izena zen, baina geroztik sasi-medikua, kuranderoa edo esan beharrean petrikilloa erabiltzen da Euskal Herriko toki askotan.



HIZTEGIA

-Hil bide zuten: Hil omen zuten esaten badugu, duda bat jartzen dugu. Hil bide zuten jartzen badugu, ez dakigu nola, noiz, baina segurua da hil zutela. Seguru dakigu.

- Tzarkeria. Txarkeria, baina txarkeria handia.
- Setio. Erdaraz sitio; herri bat tropez inguratzea.
- Ikuskatu: Errebisatu.

Bi mila eta bostehun kilometro, Milioika pauso, Hamaika taupada

Aurtengo Korrikak Baionan izan zuen amaiera. Inoizko "arrakastatsu eta jendetsuena" bezala deskribatu zuten antolatzaileek. Gure eskualdetik ostiral eguzkitsua eta polit batean pasa egin zen. Hala ere, gure egunerokotasunak lurperatua utzi du, oroitzapen soil bat bezala, armairutik hemendik bi urtera aterako dugun jertsea bezala.

Horrelako ekimenak antolatzen apartak gara euskaldunak; astero horrelako "txiringito" batean ez baldin bagaude, urduri edo temati jartzen gara batzuetan. Korrikarekin batera, AEKko langileak zihozten furgoneta handi horietako batean, komunikazio arduraduna den Ane Alberdirekin solas egin genuen Korrikako bitxikeriei buruz.

Talde ederra zoazte hemen...

Bi furgoneta daude, bata aurrean eta bestea atzean. Askotan atzeko furgonetak gasolina edota janariaren bila joaten da. Hala ere, autoaren goiko aldean badaude lau bozgorailu, generadore batek elikatzen dituena. Gelditu ezin daitekeenez, martxan bota behar zaio gasolina, horretarako dauka furgoiak eskailear txo bat, martxan gora igotzeko, eta matxuraren bat baldin badago ere, martxan konpontzen dira... Nahiz eta arriskutsua izan, pertsona jakin batzuek bakarrik igotzen dira, ez.

Eta ez dago inolako tranparik, inoiz ez da lekukoa geratzen...

Gezurra ematen badu ere, horrela da. Trebiñun, adibidez, beti dago goizeko bostetan korrika egiten duen txororen bat; gainera, bertan, kilometroak luzeagok dira. Gonbidatzen zaituztegu nahi duzuenean ikustera etortzera. Harrigarria da nola leku hauetan ere gau parteko edozein txokotan jendea nola emozioz beterik korrika itxoitzen duen... Eta ez, ez da inoiz gelditzen...

Azkeneko Korrikan, adibidez, Zornotzara ailegatzerakoan, horrelako patata bat duen errotonda bat dago. Aurrekusi ez zen txirrindula martxa edo lasterketa bat zegoen, eta bertara ailegatu eta aurrez-aurre topatu genuen elkar. Ba hor egon ginen errotonda horri mila eta hamar buelta ematen; trikitilariak eta guzti, goitik beheara zorabiatzen, txirrindulariak pasa arte!

Neketsua da lan hau?

Fisikoki bai, baina emozioz eta ilusioaz gainezka gaude, hementxe talde guztia irrikan gaude Korrika noiz iritsiko zain, abentura berri hau hasteko. Hala ere, gora eta behera zabilta, altxa, errepidean egun guztia... Egia da oso ondo pasatzen dugula, eta guretzat oso berezia den zerbait dela hau barrutik bizitzea, oso desberdin ikusten delako... Egunero gertatzen zaigu, herri batean lo egitera joateko orduan Korrika pasatzen bada, kriston emozioarekin hartzen dugula. Logikatik kanpo geratzen den zerbait da.

Kilometroen ordutegiak mantentzea zaila izanen da ezta?

Horretarako adituak ditugu; furgonetetako gidariak kriston lana egiten dute; egia da jende asko pilatzen den herri eta hirietan motelago egiten dela martxa, baina gero gau partean eta, berreskuratzen da denbora hura; nolana ere, esan beharra dago azkenengo urtetan modu harrigarri eramaten hari dela puntualtasunarena, eta hori gidari eta ekipoaren meritua da.

Teknologiak erabat egin dute aurrera, nola koordinatzen zen lehen?

Laugarren Korrika da hau niretzat. Sartu nintzenetik ordenagailuekin lan egiten dugu, eta niretzat ezinezkoa da irudikatzea sakelako telefonorik gabe egotea hemen: "Nora zoazte, nola zabilzate?"

Pentsa argazkilarien lana, lehen karreteak eta holakoak erre-dakziora korreo eta mezularien bitartez igorri behar zituzten, orain furgonetatik bertatik jartzen dituzte, ia-ia unean bertan Sa-rean.

Logistika aldetik beste istorio bat zen. Antolakuntza aldetik nolakoa den ikusteko, jakin behar duzu beste furgonetan komun txiki bat dagoela, lehen besteekin hitz egin behar, taldetxo bat elkartu eta auto batekin herri bateko taberna bat bilatu behar... Edota Korrika aurreratu kilometroren bat eta zuhaitz majo bat bilatu... pentsa 14 orduko txandak daude, 9 pertsonaz osatuta daudenak, hedabideekin erlazioa koordinatzen dituen taldeaz aparte...



“Barrualdetik ateratzen den musika egiten dugu”

Argelian jaio baldin bazen ere, orain Barañainen bizi da. Parisen hezia, nerabezaroan Egiptora joan zen arabiera ikastera. Gero Argelian ere ikasi zuen. Gure hurrengo protagonistak apirilaren 19an Larrainzarren egingo ditu bi ikuskizun; alde batetik umeentzako txontxongilo ikuskizuna eta bestetik kontzertua. Berarekin solastu gara musika, erlijio eta bizitzaz. Nur izen artistikoa dauka: Argia, euskaraz.

Nolako da zuen txontxongilo ikuskizuna?

Ani eta biok denbora dexente daramagu txontxongiloak erabiltzen. Euskal mitologia lantzen du berak. Duela gutxi iruditu zitzaizun saharai eta euskal mitologiak nahastea ipuinen kontakizunean. Ipuin edo kontakizun txiki bat sortu dugu printzesa eta tuareg batzuen artean. Gure helburua kultura hau erakustea da familia guztiarentzat. Umeen partehartzea bermatzeko, galderak egiten dizkirate; nik arabieraz erantzun baina Anik euskaratzen ditu. Hizkuntza eta kultura jokoak planteatzen ditugu Sahara beste modu batean ezagutzeko.

Zure iritziz, zein da emakumearen egoera arabiar munduan?

Orokorrean esanda, arabiar eta saharai emakumeen egoera nahiko desberdina da; esan beharra dago emakume sahararrak askatasun maila handiagoa duela Maroko edota Argeliako emakumeekin alderatuta. Kultura eta hezkuntzaren bidez, berdintasun maila handiagoa da.

Zein da berdintasun horren arrazoia, erlijioa?

Erljioak ez du zerikusirik zantzu hertsian; berez erlijioak berdintasuna bermatzen du, gizonak aspalditik egiten duen interpretazio itxiak, beraien interesen alde jotzeak egin du honek. Hezkuntza ere, argi dago, oso garrantzitsua da, maila guztietan, hezkuntza “laikoaz” edo hitzegiten badugu, pertsona bat ikasi ez duenean, aurrera egitea oso zaila egingo zaio berdintasunaren borrokan. Beldurra izanen du beste pertsonak zurekiko berdinak baldin badira, inbadituko nautelakoan edo... Hori da herrialde horietako gizon askok duten beldurra, batez ere, hezkuntzaren faltagatik.

Sufi musika lantzen duzue; ze, “derviche” horien antzera, bueltaka?

Ez, ez ditugu bueltarik emango... kar-kar Sortu dugun taldea espiritualtasunean oinarritua dago. Hurrengo egun horretan Ultzaman egingo duguna da nire kantuak adaptatzea saharaiar olerkigintzara. Zergatik? Normalean nik abesten dudana oso espirituala da, amodio unibertsalari buruz hitz egiten dute nire abestiek... Oraingo honetarako olerki batzuk prestatzen ari naiz sahararen egoerari buruz hitz egiten dutenak... Nire moduan interpretatuko dut. 4-5 abesti izango dira egun horretarako bereziak... Hala ere, abesten ditudan olerkiak VIII. mendekoak dira, niretzat arabiar olerkigintzaren mementurik garden eta garbiena. Alderdi guztietan da garbia. Batez ere Rabi el Adawiyaren lana; inolako erlijiotan sinesten ez zuen dantzari bat zen. Bapatean Jainkoaz maitemindu zen, guztiz. Mundu guztiaz ahaztu eta bakarrik

Jainkoari begira jarri zen; bere olerkiak maitasun horretaz hitz egiten dute. Filme bat eta guzti egin diote.

Eta taldeari buruz, ze esan dezakezu?


Normalean lau pertsona gara; bata flamenkar kitarra jotzen du, normalean sufi musika entzunda, ez dago musika honen kutsurik, halaere pentsatu dut fusio pixka bat egitea. Ukitu ezberdina, kolore ezberdina ematen dio musikari. Keko perkusiolariak darbuka eta pandero sufia jotzen ditu eta baita pandero borobila ere. Badago marokiar mutil bat ere, arabiar bibolina jotzen duena, oso instrumentu polita da, bibrazio eta indar handiak transmititzen dituenak. Eta nik abesten dut. Barrualdetik ateratzen den musika egiten dugu.



"Sahara ez da saltzen"



ZER IKUSI



2007ko apirilean kokatzen gara. Saharako Nazioarteko Zinema Erakusketan, hain zuzen ere. Iruñeko hiru lagunek argazkilaritza ikastaro bat eman nahi dute Aljerian dagoen Dajlako errefuxiatu akanpalekuan. Ideia horretatik abiatuta, film-dokumental bat eraiki zuten.

17 pertsonen parte hartu zuten ikastaro horretan. Bertatik hartutako kontakizun eta irudiek lagundu zieten ikusten nola 30 urtez Hammadan zain egon ondoren, errefuxiatuek egoera kritikoan daudela, pazientzia agorturik, itxaropena galdua. Hammada hau, basamortuko alde irmo eta gogorra da.

Dokumental honen muntaia fresko eta dinamikoa da; bertan musikak ere badu bere garrantzia; besteak beste, Manu Chao, Mariam Hassan, Chambao, Gualitxo, Aurora Beltran, Tonino Carotone edota Ampanoia musikariak agertzen dira. Abesti hauek lengoi berezi bat sortzen dute; Saharai herriaren bizitza eta historia gerturatzen diguna, ahaztuta eta saldua dagoen herria, zalantza handiko etorkizuna duena.

Pasa den apirilaren 5ean, Arostegin ikusi zen film honek, herri honen historia bisualetik ibilbide bat proposatzen digu, Aljeriako hegoaldeko errefuxiatu kanpaldien egoera erakutsita eta 30 urte baino gehiago irauten duen gatazkako klabeak ezagutzeko ere aukera ematen digu.

Zer irakurri

"Mira si to te querré"

Eleberrian bi aro oso ezberdin bereizten dira. Horietako bat 1975ean kokatzen da, eta Montse eta Santiren bizitza kontatzen digu: Montse, familia aberats bateko alaba nerabea, Santiz maitemindu da guztiz; Santi tailerreko mekanikoa da, eta, lana galtzean, irakurle guztiok Sahararaino eramanez gaitu, herrialde hori espainiarren menpean egonen den azken egunetan. Istoriaren zati hori interesgarria izan da niretzat, alde batetik, ni gazteegia bainintzen; eta, bestetik, zentsura frankistak ez baitzigen "Ibilaldi Berdeaz" ezer jakiteko aukerarik eman. Ibilaldi horren bidez, Espainiak Marokori Sahara eman zion lotsagarriki, eta oraindik Saharako herriak horren ondorioak jasaten segitzen du. Eleberriri honi esker gertakari horri buruzko ezagutza eguneratu ahal izan dut.

Eleberrian azaltzen den bigarren aroa gaur egun gertatzen da, Montse argazki zahar bat aurkitu eta amodio zahar horretan sakontzen hastearrekin batera. Informazio bila Aljeriaraino joan da, eta han oso gertakari ilun batean nahastuko da, gaixotu eta hil zorian izanen da.

Amodiozko nobela baten itxura izan badaiteke ere, ez da horrelakorik inola ere. Emakume batenganako amodioa da, herri batenganako maitasuna, talde bateko partaide izatea, errugabetasuna, traizioa, hobetzeko grina. Laburbilduz, oso erraz irakurtzen den eleberririk interesgarria. Atal, eszena eta aroen mugimenduak harrapatuko zaitu, eta ondokoaren jakin-mina piztuko dizu.



Gure hizkeran, Ultzamaldeko hizkeran, Basaburua eta Imozkoan beste hainbeste, hitz arrotzak hartzen ari gara. Beti hala izan da, hitzak hegalka egiten beti jakin izan baitute baina orain arte ahoz aho; hitz arrotzak oso poliki mugitzen ziren. Polliki-Polliki etxekotzen genituen. Orain berriz, irakaskuntza dela, prentsa eta telebista direla, hitzak Euskal Herriko punta batetik bestera azkar mugitzen dira, oso azkar, Espainoetik ez denean. Eta batzuk berehala etxekotzen ditugu: etxekotu, greganatu eta hemengoak balira bezala ibiltzen. Ongi etorria egiten diogu hitz bati, behar izaten baitugu, hemen ez dugunean. Baina zer esan hemengo bat kentzera etortzen denean? Zer esan hemengo hitza ordezkatu eta zokora botatzen duenean? Zer esanen diogu hitz horri? Nola deituko diogu? Ba, niri ez zait hitz bat besterik ahora etortzen: Inbasorea dela. Planta edo animalia inbasoreak izaten diren bezala, zenbait hitz ere inbasoreak dira. Eta inbasore bat ere ez zait gustoko.

Hor dugu, esate batera, partidoa hitza. Orain jendeak pilota partidoa, futbol partidoa edo mus partidoa erabiltzen hasi da. Hori hitz inbasore bat da, hemen beti pillota partide, futbol partide eta mus partide erabili izan ditugu. Eta euskal hiztegiaren ere partide ageri da eta ez partidoa. Euskaltzaindiak ere euskara baturako partide onartu du eta ez partidoa.

Gaur Ardo Frexkoko protagonista nor ekarriko eta Aita Santua ekarri dut. Ez nezakeen besterik ekarri. Frantzisko Aita Santu berriak, izugarritzko abarrotsa sortu du esan eta egin dituen zenbait gauzekin. Izugarritzko esperantza sortu du. Ez ginen dirudienez oso ongi hainbesteko esperantza sortu duenean; bazen nonbait beharra, bazen zerbait berriagoen eta freskoagoren egarria.

Zenbait tokitan aldaketa baten beharra baldin bazen, zer esan Euskal Herriatik begira? Zer esan euskaratik begiraturik? Azken 6-8 urte hauek ezin okerragoak izan dira Euskal Elizarentzat. Euskal Elizaren gainbehera, Espainiako Elizaren inposizioa; euskararen bazterketa erdararen alde argi eta garbi eginez...Ikaragarria izan da Madrilgo Rouco Apezpikuaren eraso Euskal Herriaren kontra, bere neurriko eta sokako apezpikuak jarriz Bilbon, Donostian eta Iruñean, esate baterako. Beldurgarria. Eta izua eragin digute hauek Espainiaren aldeko eta Euskal Herriaren kontrako ideologia eta politika martxan jarri dutenean.

Jende pobreen alde, jende baztertuen alde, agertu da Aita Santua. Jarrera zaila eta gogorra. Eta herri pobre eta zanpatuen alde ere bai? Euskal

Eta gazteen artean sartu den asanblada? Nondik sortu da hitz zakar hori? Badakigu non eta nola sortua den, gutxi gora behera, baina hori ez da gaurko gaia. Zertarako dugu hitz hori batzar edo batzarrea ditugunean? Ikus, ikus hiztegia. Entzun entzun gure zaharrei. Batzarre hitza hor dugu eta berria asmatu, erdal hitz bat zertxobait moztuz: Asambleatik Asanblada. Bidaia ederra egin duguna, muti-lok!

Utz dezagun ardo mindu hau eta goazen gure xaharrek darabilten ardo frexkotik trago luze bat edatera. On eginen digu eta. Izan ongi.

OHARRA.-PartidE edo PartidA gauza bera dira. Ez da kienarentzat, hemen eta Euskal Herriko zoko askotan, gehientsuenetan ez esatearren, hitzen bukaerak horrela egiten edo hobeki, esaten ditugu: OinazeA, zapelatzA, usoA, arbolA...baina, puntuE, buruE, ogiE, eguzkiE edo partidE. Baina idazterakoan, horiek denei A jarri behar zaie. Partide eta partide gauza bera dira baina partidoa ez, hau hitz arrotza dugu, inbasorea.

Herri pobre honen alde ere bai? Hala uste dugu. Esperantza, uste ez genuenean agertu da berriz ere. Haize berria Euskal Herriarentzat? Ardo frexkoa euskararentzat, ardo mindu, ozpindu eta ustelaren orde? Uste dut baietz. Asisko Frantzisko dugu go-goan Aita Santu berriaz hitz egiterakoan, baina, batez ere Xabierko Frantzisko, gure herrikide handia, nafartar eta euskaldun unibertuala. Ardo frexkoaren beharretan gaude. Bai, horixe!



Hemen hor han

Duela bi urte edo konposta egiten dugula etxean, horretan saiatzen gara behintzat, baina ez gaude ziur lortzen dugun horrekin, saltzen dutena ezberdina baita. Zerbait gaizki egiten dugu? Aholkurik eman diezagukezue? Eskerrik asko.
(Marian eta Jose)

Lehenik eta behin zoriondu nahi zaituztegu konposta egiteagatik. Eta hori zergatik? Ba, gure etxeko hondakin organikoak konpostatzearekin bat, sekulako onurak jasotzen ditugulako. Errate baterako:

Ingurumenaren aldetik datozenak: sortzen dugun hondakin organikoen kopurua asko murrizten dugu, hala nola kamioiek plantara egin behar dituzten bidaiak, beraz, atmosferara doazen isuriak murrizten ditugu.

Ekonomikoak: hondakinek duten laborantza-balorea aprobetxatzen dugu, alegia, hondakinek dituzten elikagai guztiak gure lorategi edo baratzerara doaz zakarrontzira bota beharrean.

Hezkuntza eta sentsibilizazioari dagozkionak: naturaltasunez ikusten dugu hondakin organikoen deskonposizioa naturan. Etxeko txikiendako kudeaketa zuzen baten adibidea da. Gainera, normalean konpostatzen duenak ongi bereizten ditu ere gainontzeko hondakinak.

Normala da zalantzak edukitzea, baina ziur etxean egindako konposta ona dela! Badakigu zer erabili dugun, eta hori sukaldarian aritzea bezala da, osagaiak onak badira, emaitza ona izanen da.

Konpostak materia organiko kopuru handi bat izanen du, elikagaiak (karbonoa, nitrogenoa, fosforoa eta mikro-elikagaiak) eta metal astunen kopuru txiki bat.

Etxean egindako konpostak beste itxura edukitzeak zer ikusia izaten du gure eskualdeko hezetasunarekin.



Hementxe dauzkazue aholku batzuk:



1. Lehenik **non** eta **nola** eginen dugun aukeratu dugu. Etxeko konpost-gailu batean egin dezakegu edo Mankomunitateak eman ahal digun horretan. Ongi aukeratu lekua: joaten erraza eta zuhaitz hosto erorkor baten azpian bada, hobe (itzala udan, eguzkia neguan).

2. **Hondakinak:** organikoekin bakarrik eginen dugu konposta..

Modu orokorrean, hondakin organikoak bi multzo handitan sailkatuko ditugu:

Gai berdeak: sukaldeko hondakinak (produktu begelak, frutak, otorduetako hondarrak ...), belarrik, hostoak eta abar.

Hondakin hauek hezetasun handia daukate eta Nitrogenoa eskainiko digute.

Gai marroiak: hosto lehorrak, lastoa, adarrak (hobe xehatuta edo zati txikitan), zerrautsa eta abar.

Hauek Karbonoa eskainiko digute eta gai berdeen hezetasuna konpentsatuko dute.

3. **Inoiz** ez dugu botako konpostaren kalitateari kalte eginen dion ezer: ez hondakin inorganikorik (plastikoak, metalak eta abar) edo beste material inorganiko edo toxikorik (produktu kimikoak edo botikak adibidez).

4. **Prozesuaren kontrola:** ongi konpostatzeko beharrezkoa da gai berde bezainbeste marroia izatea, noizean behin nahasi oxigenoa izateko (ez badugu nahasten usain txarra izan dezake). Temperatura altuak (50-60 gradu) jasoko ditu konpostak eta honi esker patogenoak eta belar txarren haziak hil eginen dira.

5. **Emaitza:** zortzi edo bederatzi hilabete pasa ondoren, gure hondakinak konpost bihurtu dira eta erabili dezakegu jada baratzean, lorategian edo lorontzietan.

Edozein zalantza izanez gero Pulunpe aldizkariaren helbidera idatzi dezakezue (Hemen Hor Han pulunpe@gmail.com), edo zuzenean Mankomunitateko telefonora deitu (Beatriz: 948 423 836).

Etxean konpost eginez zikloa itxi egiten dugu, naturan gertatzen denaren antzekoa egiten dugu baina gure hondakinekin.

Ez al da ederra?



Eskermila zuen galdera guztiengatik, eta badakizue ...

galdetu, galdetu...

pulunpe@gmail.com



Urrunera joan gabe Lekaleak

GANTZ EDO KOIPERIK GABEKO PROTEINAK

Ilarrak, lileak, lilekari edo lekaleak dira mailarrak edo indibabak, dilistak, txitxirioak, babak, ilarrak, kakahueak, azukia eta soja.

Euskal Herrian, gure aitona-amonek ia egunero jaten zituzten lekaleak, eta horiek baserriko lan gogorrari aurre egiten laguntzen zieten. Hala ere, gaur egun, nahiz eta gida dietetikoek astean bitan edo hirutan jatea gomendatzen diguten, gutxi dira maiztasun horretara iristen diren familiak, eta gutxiago gazteen artean.

Nutrizioaren ikuspegitik, nabarmentzekoak dira dituzten proteinak, gutxi gorabehera %20; baina, oinarrizko aminoazido batzuen falta dute. Hutsune hori oso erraz osatzen ahal da lekaleei laboreak, arroza, artatxikia, pasta, artoa, ogia eta gehituz. Horiek balio biologiko handiko proteinak osatzen duten aminoazido osagarriak dituzte.

Gainera, zuntza asko dute; horrek lagunduko digu heste igarotzea hobetzen eta kolesterola eta odoleko azukrea gutxitzen. Honako elementu hauek ere baditu: B1 eta B6 bitaminak, azido folikoa eta mineralak, hala nola, kaltzio, burdin, magnesio eta fosforoa.

Oso gantz edo koipe gutxi dute. Jaki bikaina da kirolariendako, haurdunendako, 10 hilabetetik gorako haurdunendako, hazten ari diren gazteendako eta kolesterol, hipertentsio eta arteriosklerosi arazoak dituzten pertsonendako.

Diabetikoek jaten ahal dituzte, gluten gutxi baitute. Soilik azido urikoko arazoak dituzten pertsonak kontuz ibili behar dute; halere, haragia eta arraina kaltegarriak dira pertsona horiendako.

LEKADUNAK PRESTATZEKO AHOLKU BATZUK

Oro har, lekadun gehienek eskatzen dute aurrez behatzen jartzea, ura barneratzeko eta errazago egosteko.

Ilarrak eta dilistak zuzenean egosten ahal dira.

Behatze urari ez zaio bikarbonatoa bota behar, horrek elikagai galera ekartzen baitu.

Gatza egostearen azken bost minutuetan bota behar zaio, lehenago lekadunen azala gogortu eta behar bezala egostea zailtzen baitu.

Digeritzen arrazago bihurtzeko, egosten ari direla alga kombu delakoa botako diegu, eta salda askorekin eta barazkiekin nahastuko ditugu.

Lekadunek, berez, ez dute kaloria asko; hortaz, ez da egia lekadunek loditu edo gizentzen dutela. Lekadunei

botatzen dizkiegun txorizo, hirugihar eta halako jakiek ekartzen dituzte kaloriak, eta osasunerako kaltegarriak diren gantz edo koipeak ere bai.

Horregatik gomendatzen da lekadunak barazkiekin prestatzea, elikatzeko duten ahalmena handitzeko eta kaloria gehiegi ez izateko.



E BITAMINA

Gehienbat jatorri begetaleko elikagaietan aurkitzen da, hazien olioetan, fruitu lehorretan, olibetan eta aguakateetan. Esneak eta haragiak E bitamina gutxi dute.

Nagusiki antioxidatzailea da; beraz, zelulen integritatea babestu eta haien iraupena luzatzen du. Beste antioxidatzaileekin batera lan egiten du, hala nola, A eta C bitaminekin, eta minbiziaren eta arteriosklerosiaren kontra babeste gaitu. Bitamina horrek, gainera, ugalkortasuna handitzen du, hozi-zelulak (espermatzoideak eta obuluak) eratzen laguntzen baitu. Era berean, menopausiak eragiten dituen bat-bateko beroaldiak prebenitzeko lagungarria da.

Emakumeendako gomendatzen den kantitatea 12mgr eguneko, eta gizonezkoendako, haurdunendako eta ularreko haurdunendako 15 mgr. eguneko. Behar hori oso ongi betetzen ahal da landare erreinuko produktuez elikatuz.





Enrike



FERMINA



KRISTINA



MIKEL



M
a
r
i
s
a



Ibon



ZOTI ONAK

Bertako animaliak



Berriz itzultzen gara gure eskualdean aurkitu ahal ditugun animaliei buruzko txokoarekin. Atal hau, oso polita eta txukuna izateaz aparte, badu oso praktikoa den helburu bat; taberna eta familia bazkari aspergarri horiek animatzeko gaiak izatea; kasu honetan, gau partean ateratzen den animali hegalaria bati buruz bitxikeria mordoa aterako dugu. Saguzarra hain zuzen, Gauinara gurean.

Ugaztuna, hegalaria, itsua, eta ultrasoinuen bidez gidatzen dena. Dracula eta Batman filmetan agertzen dena... hori guztia aski ezaguna da. Baina, ezagutzen al zenituen bitxikeria hauek, irakurle maitea?

-Iberiar Penintsulan 28 espezie ezberdin bizi dira.

-“Murciélago” erdal hitza latinetik badator ere, RAE hiztegiaren arabera “Murciélago” eta “Murcié-galo” hitzak onartuta daude.

-1730. urtean agertu zen lehenengo aldiz hiztegi

hori, eta bertan animalia hau hegazti bezala deskribatzen zuten.

-Euskarak beste edozein hizkuntzak baino modu ezberdinagoz deitzen ditu; ikus ditzagun batzuk...

-Apo-añari:“Arrapo-enara”,Argixorigin, Elhuyar, Ezkaba-xorro,Ganbarinak: Baliteke ganbarekin izatea erlazioa izen hau..., Gau-beha: “Gaeon ikusten duena”,Illun-txori, Inara-sagu, Iñere-sagu, Ipurdi-motx, Kafanera, Saguxator,Sorgin-txori , Txirrin, Zapo-kiñuri

-Kobazulo batetik ateratzean, gauinarek beti ezker aldera joaten dira.

-Umezurtz geratzen baldin bada txiki bat, bes-teek adoptatzen dute.

-Ipar-amerikako saguzar gorriak, bere gorputzean -5°Cko tenperatura jasan dezake.

-Eta bukatzeko, zer edo zer “pikantea”: Zientzia munduan duela urte dezente bazekiten animali hauek felazioa praktikatzen zutela, baina duela gutxi jakin da “cunnilingus”a ere jartzen dutela praktikan... A ze artistak!





Udaberri
On!

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe



ZIAURRITZ



PUBLIZITATEA BEHAR DUZU?
HEMEN LEKUA DUZU
pulunpe@gmail.com
649676764



TEILA FRANTZESA

eta teilatuentzako sistemak



Exeileku Baserría

GALLEANE12 Rojo Occitan



948 123 713
info@lestuiles.es
www.lestuiles.es

BERMEAK



Teilatua berria edo teilatua aldatzeko beharrez zaude?